

PROPOSAMENAK, KOMUNIKAZIOAK ETA TAILERRAK

BIDALTZEKO ARAUAK

II. GEOEUSKADI KONGRESUA 2021
KARTOGRAFIA ETA INFORMAZIO GEOGRAFIKOA

BILBAO, 2021eko URRIAREN 14-15a

Komunikazio eta tailer proposamenak bidaltzea.

Ikertzaileak zein arloko profesionalak gonbidatzen ditugu **komunikazio-saioetarako proposamenak aurkeztera**, baldin eta Kongresuak proposatutako gaiari heltzen badiote eta ezarritako helburu espezifikoetara egokitzen badira.

Halaber, profesionalak edo dibulgatzaileak ere gonbidatzen dira **tailerrak emateko proposamenak aurkeztera**. Tailerrek ordubeteko iraupena izango dute erreferentzia gisa, eta Kongresuaren helburuekin lotutako proiektuak lantzeko edo abian jartzeko metodologiei, tresnei edo baliabideei buruzko ezagutzak emateko aukera emango diete bertaratuei.

Proposamenak aurkezteko **arauak** honako hauek izango dira:

1. Kongresuko proposamenak egiteko (**komunikazioetarako edo tailerretarako**) **txantilo** ofiziala erabiliko da laburpena egiteko, eta ez da onartuko formatu desberdineko lanik. Dokumentu horretan jasotako estilo- eta hedapen-arauei jarraituko zaie. Txantilo hori orri honetan bertan deskarga daiteke.
2. **Proposamenaren laburpena bidali beharko da geoeuskadi@euskadi.eus helbide elektronikora**, eta gaiari honako hau adierazi beharko da: [Congreso geoEuskadi Kongresua 2021]: komunikazioaren/tailerraren izenburua
3. **Hizkuntzak**. Proposatzen diren laburpenak **gaztelaniaz** (Kongresuaren hizkuntza) **edo euskaraz** idatzi beharko dira. Proposamena onartzen bada, komunikazioa/tailerra bi hizkuntzetako batean egin ahal izango da, eta alde zuzenetik jakinarazi beharko zaio erakundeari.
4. Tituluak edo laburpenak **ez du izan behar informazio nabarmenki komertzialik** edo publizitatearen, propagandaren edo iritzi subjektiboen eremuan aintzat har daitekeen informaziorik.
5. Komunikazioa onartzen bada, lehenengo egileak (edo saioa egiten duenak) **15 eguneko epea izango du Kongresuan izena emateko**. Komunikazio/tailerraren egile gisa agertzen den pertsona batek, gutxienez, eman beharko du izena Kongresuan, eta inskribatuta ez badago, ez da lana jasoko eta ezingo da defendatu edo azaldu. Ziurtagiria izena eman duten eta beren komunikazioa/tailerra azaltzen duten pertsonen izenean baino ez da emango.
6. Lanak jaso ondoren, **ezin izango dira funtsean aldatu**.

Ebaluazioa eta Hautaketa

Batzorde Zientifikoa kongresuaren helburuetan esperientzia eta aintzatespena duten Eusko Jaurlaritzako eta erakundeetako langileek osatuko dute.

Honako ebaluazio-irizpide hauek aplikatuko dira:

1. Jardunaldien helburuekiko eta araekekiko kidetasuna
2. Kalitatea, egituraketa eta koherentzia
3. Komunikazioaren edukien gaurkotasuna
4. Interesa, aplikagarritasuna eta balio praktikoa

Batzorde Zientifikoaren ebazpena proposamenen ebaluazioan eta aretoen eskuragarritasunean, ordutegietan, gaien araberako banaketan eta gai logistikoetan oinarrituko da. Ebazpena posta elektronikoz jakinaraziko zaie interesdunei.

Proposamenak bidaltzeko datak:

2021eko maiatzaren 10a	Tailerretarako proposamenak bidaltzeko epe-amaiera
2021eko maiatzaren 10a	Komunikazio-proposamenen laburpena bidaltzeko epe-amaiera.
2021eko maiatzaren 31	Tailerren onarpenaren jakinarazpena.
2021eko maiatzaren 31	Komunikazioen onartzea jakinaraztea.
2021eko urriaren 1a	Artikuluen bidalketaren eta komunikazioen aurkezpenen epe-amaiera.

Komunikazioetarako jarraibideak

Oro har, zure proposamena komunikazio-saioetarako onartu bada, gogoratu **20 minutu** izango dituzula aurkezteko, eta, ondoren, 5 minutu galdera-txandarako. **Ziurtatu aurkezpena baldintza horietara egokitzen dela.** Erakundeak denborak betetzen direla zainduko du.

Tailerrek **ordubeteko iraupena izango dute erreferentzia gisa.**

Batzorde zientifikoaren balorazioaren eta aretoen eskuragarritasunari egokitzearen arabera, komunikazioetarako/tailerretarako dagoen denbora handitu edo murriztu daiteke.

Lana pertsona batek edo batzuek aurkeztu ahal izango dute, eta guztiek Kongresuan inskribatuta egon beharko dute.

Ahozko aurkezpenaren hizkuntza **gaztelaniaz** (kongresuaren hizkuntza) **edo euskaraz** izango da.

Informazio gehiago jaso behar izanez gero: 945-019810 / geoeskadi@euskadi.eus